

EUSKALTZAINDIAREN VIII. BILTZARRA

BARNE-ERREGELAK

1968an Arantzazun egindako Biltzarraren hamargarren urteburuan Euskaltzaindiak bere VIII. Biltzarra gertatu nahi du. Eleizalderen ehun urteburua betetzen denez, Bergarako Mintegian izango dira Biltzarreko lan saioak, sorrerako euskaltzain izan zenaren omenaldi bezala.

Biltzar honek Oinarrizko Barne erregela hauk izango ditu:

1. Euskal idazle, ikastoletako nahiz beste ikastetxeetako irakasle, federakunde, alfabetatze-euskalduntze mugimenduko, testugile, argitaratzaile, kazetari, euskal kultur lanetan diharduen nornahiri dei egiten zaio, beraz. Horietako edonork parte har lezake Biltzarrean.
2. Biltzarraren gai nagusi eta orokorra, hamar urte hontan euskararen arloan emandako arau eta abia da azter eta sakontzea izango da, eta finkatzeke daudenak aztertzea.
3. Biltzarraren Zuzendaritza hiru batzordek daramate: a) Hizkuntzarekikoak, b) Sozio-estadistikako azterketakoak, eta d) Antolakizunekoak. Hiru hoiengainetik laugarren bat da oraino: Batzorde Orokorra.
4. Biltzarreko *Hitzaldiak* batzorde bakoitzak gertatuko ditu, hizlaria ere berak aukeratuta izango da, eta Batzorde Orokorri proposatua, beronek birresteko.
5. *Txostenak* edonork ekar ditzake, baina epearen barruan jakineraziz. Epe hau, Ekainaren hondar egunean amaitzen da, gaiaren berri emateko, eta Uztailean laburpena bialtzeko. Hamar minutuko luzeera izango du gehien jota.

6. Hitzaldiak, nahiz hizkuntzarekiko nahiz sozio-estadistikarekikoak izango dira, bi barruti hauetako gaia nahasi gabe. Eta berdin egin beharko dute txostenek.
7. Txostenak irakurriko dira denbora baldin bada. Eskubide gehiago dute, noski, Biltzarraren gaiaz zuzenago lotzen direnak, baina izan daitezke txostenak inor konturatu ez den gai bati buruz ere. Gai berberaz direnean, Batzordeak batera, molda edo labur ditzake.
8. Elkarrizketak Zuzendaritzak erabakitako garaian izango dira. Eta muga batekin.
9. Erabakiak Euskaltzaindiak hartuko ditu, hala behar dela ikusiko balu.
10. Biltzarrera etorri nahi dutenek, aurrez izena eman behar dute eta biltzarkide txartela jaso.
11. Biltzar matrikula 1.000,— pezeta izango da eta lan saio denetara joateko eskubidea berekin du.
12. Oinarrizko Barne Erregelez gainera, beste Erregela Berezi batzuk izango dira, aurrez adieraziko direnak: Elkarrizketetarakoak, Antolakizun Zerbitzuetarakoak, eta abar.